

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 215. zkia. 2013ko iraila



**Sukaldean dena
emateko prest**



IRAZABAL
clínica dental

Antonio Murillo doktorea

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

Ainhoa Zulueta doktorea

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

Susana Sierra doktorea

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

Maitane G. Iñiguez doktorea

ODONTOLOGIA OROKORRA, ODONTOPIEDIATRIA

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera

08.00 - 22.00



Zapatuetan

10.00 - 14.00

IRAZABAL HORTZ-KLINIKA

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Igone Amesti, Ibaia
Azagirre, Leire Elustondo,
Estibalitz González,
Ane Saéñz eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Gaizka Areitioaurtena,
Amaia Arriaga,
Antonio Hernández 'Cuco',
Fede Iturriagagoitia,
Patxi López, Pello Mugarza,
Valentin Mugarza
eta Topagunea.

ARGAZKIAK:

Igone Amesti, Ibaia
Azagirre, Maitane Egido,
Leire Elustondo, Estibalitz
González, Valentin Mugarza,
Topagunea eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.360 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-215/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

BELEA *Corneja negra Corvus corone*



Beltz distiratsua da bere lumajea, eta beltza ere eta harria bera baino gogorragoa du moko. Jateko? Intxaurrak, gaztainak, sagarrak... "Ene, begetarianoa eta garbi jate zalea!" pentsa dezake norbaitek. Ez ba! Haratustela ere jango du parean suertatu ezker, beste animalia zein beraren moduko txori hilaren okela izan arren. Pinudi altuetan egiten du habia eta adarretik adarrera ibiltzen da, karraskadaka eta lagunei deiadarka. Kuadrillan irtetzen du, lauzpabosteko aldetan, goiz xamar, ortu inguru eta soloetan arimarik ere ez dabilenean. Inon sagar heldurik egon ezker, haretxeri kolpeko dio. Elorretatik Abeletxera bitartean, Trabakutik Hanbreraino, Aixola inguruan... ehiztariak gutxitu direnetik, ugaldtu egin da bera.

Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4	ERMUAN ZER? 16
Abdelhay El Idrissi	Tabernariak Bizkaiko pintxo lehiaketan
ELKARRIZKETA5-7	BOTEPRONTOAN 17
Maitane Egido	Alex Alonso
MALLABIAN ZER?8-9	IRITZIA 18
Ainhua Barrainkua eta J. Ramon Muñoz	Zorionak San Pelayo ikastetxea!
ERREPORTAJEA 10-11	SALEROSKETAK 19
Mallabiko auzo-eskolak gogoan	Saldu, erosi edo agurtu
TOPAEGUNA 12-13	ANTZINAKOAK.....20
Euskaltzaleen jaia irailaren 28an	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN..... 14-15	KALEKO INKESTA21
San Martin Azoka azaroaren 9an	Eskolaz kanpoko ekintzak
	AGENDA22
	Urriko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Abdelhay El Idrissi

Berbera da eta duela 9 urte heldu zen Ermura Abdelhay. Maitasunagatik etorri zen eta egun, 39 urterekin eta janari-denda martxan, gure artean geratzeko autua egina du.

- Nolakoa zen zure bizitza Marokon?

Denda batean egiten nuen lana. Aitona-amonek denda zuten, gurasoek bertan egiten zuten lana eta ni ere txikitatik bertan aritzen nintzen. Hona etorri nintzenean argi nuen denda ipini nahi nuela, horretara dedikatu izan naiz bizitza osoan. Paperak prestatu eta urtebeteko epean denda martxan nuen.

- Zer dela eta etorri zinen?

Maitasunagatik. Nire emaztea 4 urte-rekin etorri zen Ermura eta bere aitak 40 urte inguru daramatza hemen: Rife-tik etorritako lehenetarikoa dira. Nik ez nuen Rif en bizi nahi eta hona etorri nintzen.

- Etorri aurretik, bazenekien nolakoa zen Ermua?

Bai, nahiko argi neukan zer topatuko nuen. Emazteak esandakoagatik eta Ermuan bizi diren marokoar asko Rife-koak direlako.

- Hala ere, aldaketa erreza izan zen? Zer izan zen gogorrena?

Nahiko erraz moldatu nintzen. Zailena hizkuntza izan zen, oraindik ere kostatzen zait. Bestalde, eguraldia da



gutxien gustatzen zaidana, hezetasuna, euria... tristeagoa da. Janariari dagokionez, ez nuen arazorik izan. Hemen jaki-aukera ugari dago eta kanpoan bazkaltzen duzunean ere, gustuko duzuna eskatu dezakezu.

- Zerbaitek harritu zintuen?

Asko gustatzen zait jaiak nola ospatzen diren: Santixauak, gabonak, inauteriak... Jendea kalera irten eta batzea. Marokon familia artean egiten dira gauzak batez ere, etxera begira.

- Nola hartu zintuen hemengo jendeak?

Ondo, normal. Beharbada nire kasua berezia da, ni jendeari hurbildu beharrean, jendea niregana datorrelako, dendara. Pozik nago, asko gustatzen zait jendearekin harremana izatea, hori egin baitut txikitatik eta ohituta nago.

- Zer botatzen duzu faltan?

Familia, hemen emaztea eta alabak txoa bakarrik ditut. 11 anai-arreba gara, ni bigarrena naiz, eta han jarraitzen dute denek.

- Marokora bueltatzen zara?

Bai, urtean behin bueltatzen naiz, baina etxeko hiruron bidaia oso garestia da.

- Hemen geratzeko asmorik?

Bai, gustura nago eta ez daukat joateko asmorik.

- Euskara ikasiko duzu?

Bai, asko gustatuko litzaidake ikastea. Alabak ikastolan ikasten du eta errieta egiten dit ez dakidalako gauzak nola esan. Dendara ere euskaldun de-zente datoz eta euskara ikasi behar dala esaten didate. Saiatuko naiz!

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Maitane Egido, Ruta Quetzal BBVA 2013ko parte-hartzailea:

“Bidaia honek hazteko eta beste ikuspuntu bat izateko balio izan dit”

Vasco Núñez de Balboak 1513an aurkitu zuen Ozeano Barea. Bost mende beranduago, Maitane Egido ermuarrak Extremadurako aurkitzaile horrek emandako urratsak jarraitzeko aukera izan du, Panamako Darién oihanean barrena, Ruta Quetzal BBVA programari esker. Hamazazpi urteko gazte honek bizitzari aurre egiten ere ikasi du, 53 herrialdetako 225 gazterekin batera. Abentura ahaztezina izan da, Maitaneren esanetan, “baina bizitzan behin bakarrik bizi behar den horietakoa”.

- *Zein da Ruta Quetzal BBVAren helburua?*

Espainiako historia ikastea, batez ere. Miguel de la Quadra-Salcedoren ustez, ezin da Espainiako historia ezagutu Hego Amerikatik ikusten ez baduzu.

- *Bidaiaren lehen fasea Panaman burutu zen. Nola hartu zintuen herrialde hark?*

Gogoratzen dut aireportutik irten nintzenean hezetasun eta bero itzela sentitu nituela bat-batean. Arropa gorputzera pegatu zitzaidan eta momentu batean izerdi-patsetan nengoen. Gauz heldu ginen eta kanpin-denda muntatu behar: eltxoek jan egin gintuzten! Egunik gogorrena izan zela esango nuke, baina umorez hartu nuen!

- *Hortik aurrera, Núñez de Balboaren pausuk jarraitu zenituzten?*

Bai. Darién oihana zeharkatu genuen tontor bateraino heldu arte, bertatik ikusi baitzuen Balboak Ozeano Barea lehen aldiz. Bertaraino igotzeko 2 egun behar izan genituen eta oso gogorra izan zen, eskalatzen joan ginen ia-ia, soka batekin lotuta.

- *Parte hartzaileok proba fisikorik gainditu behar izan zenuten programan parte hartu ahal izateko?*

Ez. Bidaia hasi aurretik, astean 3 bider kirola egitea gomendatu ziguten, baina jende askok ez zuen egin eta nabaritzen zen. Kontua da, oihanean ezin zarela atzean



geratu: nahi eta nahi ez arrera egin behar duzu. Nire ustez, buruan dago koska: nahi izanez gero, nor bere mugak gaintu ditzake.

- *Ondo gosaldu eta bazkaltzeak berebiziko garrantzia izango zuen, ezta?*

Pentsa: Batzuetan glukosako pilulak hartu behar izaten genituen! Oihanean, tribukoek ematen zigutena baino ez genuen jaten... Arroza batez ere eta hango frutak: yuka, mangoak..., bidetik topatzen genuena. Behin 10 mango jan nituen eta hurrengo eguna... desastre hutsa izan zen! Jakina, oihanean ez dago komunik!

- *Hango tribukoak izan zenituzten bidelagun?*

Bai, Emberá tribuko bi taldeekin eta Wonnan-ekin bizpahiruna egun igaro genituen oihanean. Sua egin genuen, dantzan, ehizan, arrantzan... Oso jatorrak ziren eta bi indigena gurekin etorri ziren bidaia osoan, Europara ere.

- *Oihana eta tribuak lagatakoan, nora jo zenuten?*



Taboga irlan bizpahiru egun egon ginen eta Panamako hiriburura joan ginen gero. Tikitixa eraman nuen eta, beste 'ruterok' eramandako musika tresnekin hainbat emanaldi egin genituen bertan. Nik 'Gaztelugatxe' jo nuen, esaterako.

- *Zein leku gustatu zitzaizun gehien?*

San Lorenzo amildegia: bitzita osoan ikusi dudan lekurik politena! Bertatik oihana ikusten da, Chagres erreka eta itsasoa. Egundak igaro genituen bertako aterpetxe batean.

- *la hilabete Panaman igaro eta gero, bidaiaren 2. fasea Europan burutu zenuten, Carlos V.enaren omenez. Zein lekutan egon zineten?*

Bruselan, Gantesen eta Brujasen (Belgikan), Pari-

sen... Gure kanpin-denda eta su txikiarekin joan behar ginen leku guztietara, armadak jaten dituen anoak berotu ahal izateko. Eta inguruan McDonalds mordoia ikusten genituen! Jendea harrিতa geratzen zen gu ikustean! Europako zatia ezberdina izan zen, hemen protokolo eta adeitasun bisita asko egin behar izan genituelako, eta hori ez zitzaidan batere gustatu.

- *Zer dira bada adeitasun bisitak?*

Ruta Quetzal BBVAren sustatzaile guztiakin bildu behar izan genuen. Printzea ezagutu genuen, esaterako, baina esperientziarik txarre-na izan zen niretzako, gainera gaixorik nengoen. Behintzat ur beroarekin dutzatzen laga ziguten, behin-

“Oihanean, Emberá-k eta Wonnan-ek emandakoa baino ez genuen jaten”



goz! Extremaduran ere egon ginen, Balboa bertan jaiotako eta primeran! Hango emakumeek jateko gauza ederrak prestatu zizkiguten!
- Argazkietan denok berdin jantzita zoazte...

Bai, bidaia hasi aurretik kutxa handi bat bidali ziguten etxera, eraman beharreko gauzekin: bi motxila, 6 kamiseta, alkandora, botak, sandaliak, kapela, idazteko egunerokoa eta zira. Gure kontu: barruko arropa, prakak, toalla, nezaser txikia, txinbo xaboia, eltxoak uxatzeko produktua eta lozakua.



- Egunerokoa idaztea derrigorrezkoa zen?

Ez, baina egunean bizi izandakoa asimilatze eta ordenatzeko oso erabilgarria zen. Nik euskaraz idatzi nuen eta orain jakin izan dut, egunerokoen lehiaketa egin behar dela. Irabazten duenak, bidaia berriro egingo du. Nik ezingo dut parte hartu, baina ez zait axola. Ez dakit berriro egingo nukeen, bide-lagun berberekin egin nahiko nuke errepikatzeokotan. Bizitzan behin bizi beharreko esperientzia dela uste dut eta bizi izandakoa gorde nahi dut.

- Bidaiak alde kulturala eta alde turistikoa izan du. Irakatsitakoaz gain, zer ikasi duzu?

Hango tribuekin egon eta gero, konpartitza zer den ikasi dut, miresgarria da nola jokatzeko duten. Baina... hona helduta mendebalder-

“Printzea ezagutzea esperientzari txarrena izan zen niretzat”

tu egiten gara berriro ere, horrelako kontuak ahaztuta. Bestalde, taldekideei laguntzen ikasi dut: Baten batek ezin zuenean aurrera egin, bere motxila hartu eta nire arekin batera eramaten nuen, bidelagunak ginelako. Hurrengo egunean, zuk beharra izanez gero, baten batek zure motxila eraman behar harko zuelako. Hemen ez dugu ulertzen bizitzan laguntza eskaini behar dugula.

- Bizitza ikusteko modua aldatu dizu bidaia honek?

Baietz uste dut, gauzei duten garrantzia ematen ikasi baitut: erlatibizatzen eta garrantzia duten gauzak bereizten -eta horien artean, ez dago gauza materialik-. Halaber, momentua bizitzen ikasi dut. Hazteko balio izan dit, asko gainera.

- Zure nahiak bete dira?

Bai, bete eta gaingitu ere bai. Abentura espero nuen, jendea ezagutzea... baina ez hainbeste. Oso harreman sendoak sortu dira.

- Miguel de la Quadra-Salcedok egin zuen ezagun beka hau. Bera ezagutzeko aukera izan duzue?

Bai, baina oso zahartuta dago, gaixotuta. Pena ematen dit, bera joaten denean Ruta Quetzal desagertu egingo delako, bera ardurtzen baita gauza guztiez.

- Azken urteotan Ruta Quetzalek ez dauka antzinako oihartzunik. Nola izan zenuen honen berri?

Amak esanda. Txikitatik egin dit berba horri buruz eta azkenean parte hartzeko gogo kutsatu zidan. Esperientzia bizi nahi nuen eta parte hartzeko lan handia egin dut.

- Zer eskatzen zizuten bada?

Lan bat aurkeztu behar zen eta ni Europako historia eta emakumearen gainean aritu naiz. Inguruko jendeak asko lagundu dit eta 10 bat atera dit: bikain! Iaz 9,5 atera nuen eta ez ninduten hartu.

- Lana prestatzen ere asko ikasiko zenuen...

Bai eta konturatu naiz ikeritza eta idaztea gustatzen zaidala. Ez naiz idazle txarra! Beharbada kazetaritza ikasiko dut, aurtan erabaki beharra daukat eta esperientzia honen zalantzak sortu dizkit.

Dorleta Vidal

AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

SEHIGA



LAN-BABESA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454 / Fax: 943 033 821
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak

Mayte
Denda berria
VI Centenario 5
943 172 412
ERMUA

Mallabiko Trikitixa Eskola

Matrikula zabalik



Adolfo Jainaga
943 20 62 66

Ainhoa Barrainkua eta Jose Ramon Muñoz:

“Dendie gure produktuek saltzeko aukera ona da”

Onandi beheko baserriko bikote honek Mallabiko ‘BG’ denda hartu barri dau. Bertan elikagai ezberdin eta drogeria produktuez gain, euren baserriko ortuarixek be saltzen dabez.

- Noz zabaldu dozue dendie?

Abuztuen hartu gendun. Bixok langabezian egon gara. Aurreko jabiek lagatzen eba- la jakin gendunien, aukera hau aprobetxatu eta bi bider pentsau barik animau giñen.

- Zelako produktuek daukeuz dendan?

Aurreko dendiek saltzen zittunek mantentzen doguz, eta gero gure baserriko produktuek be badaukaguz, sasoi- en saiko produktuek. Momentu honetan nahiz eta aurten urte txarra izen, to- matiek daukaguz eta porru- akkin be hasi gara. Piper klase ezberdiñek, baiñak, kalabaziñek, letxugak, kipu- lak... Daukegune ekartzen dogu eta politto saltzen da.

- Zer da gehien saltzen dozuena?

Frutie eta batez be gure baserriko produktuek.

- Zelan baloratzen dozue oin arteko esperientzie?

Ez dogu holako lanetan es- perientziarik euki. Lan ez-

berdiñe da, ezin leike konpa- rau tailer bat eta hau. Gusto- ra gabiz, ikesten. Jendiakin eitten dan harremana da onena, klientie ezagutzie.

- Zelakuek die zuen beze- ruek?

Abuztuen zabaltzeran ez da ibili mugimendu handirik, eta inguruko merkatal zen- truek be ez dabe askorik la- guntzen... halan da be, gustu- re gagoz daroiegun martxi- az. Gure bezeruek leialak die; batez be jende nagusixe etortzen da gure dendara.

- Bixok egoten zarie den- dan?

Bai, beharrezkue da. Fru- tie, txarkuterixie eta ogixe guk emoten dogunez, bezero bat baiño gehixau elkartze- rauen komeni da bixok egotie.

- ‘Baserritik kalera’ proiektuen be izena emon zenduen, ezta? Zelan doie proiektu hori?

Bai, Udalak Mallabiko base- rritar ekoizlien katalogue atara eban zeñiek zer produk-



tu deukezan jakittera emoteko. Bertan izena emon gendun, baiña momentuz ez dogu enkargu deirik jaso. Oin, dendie gure produktuek saltzeko aukera ona da eta egixe esan, baserriko produktuek die jendiek eskatzen dittuenak.

- Zuen ekoizpena ekologikue da, ezta?

Ainhoa: Bai, Josek igez EHNEk antolatuteko sei hillebeteko ikastarue egin eban, eta bertan ikasittekue praktikan jarri dogu.

Jose: Ez daukagu zertifi- kau ekologikorik, baiña gure ortuarixei ez deutsegu ezer botatzen.

- Ortuen beti ibili izende- kuek zarie?

J: Nire aittek baeuken eta ikastarue egin nebanetik gustora nabil.

A.: Bai, gure baserri- xen beti euki dogu, ortuko lana gogorra da, baiña asko gus- tatzen jaku.

- Azoketan parte hartzen dozue?

Bai. Mallabia, Alonsotegi, Zornotza eta Mendaroko azoketan egon gara. Espero dogu azaruen Ermuko San Martin azokan parte hartze- ko aukerie izetie. Azokak be gure produktuek jakittera emoteko aukera onak die.

Ordutegixe:

Goizez: 09:00-13:00 Arratsaldez: 17:00-20:00
Zapatu goizak zabalik. Astelehen arratsaldiek itxita

Enkargu eta harremanetarako: 615 733 399

Ferreteria/Burdindegi

ANBOTO

- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikulua

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreteriaanboto.es

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

G

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

ORDUTEGI BARRIXE KIROLDEGIXEN

Uztailien hasi eta ikasturrien ziber ordutegi barrixe eukiko dau Mallabia I. Kirol Etxiek. Astelehenik barixekure arratsaldero 16:00tatik 22:00tara zabalduko da, baitte martitzen eta eguen goizetan be, 10:00etatik 13:00tara. Horrez gain, zapatu arratsaldez, 16:00tatik 19:00tara frontoiko kantxa erreserbatzeko aukerie egongo da aurrez eskatu ezkeru. Informaziño gehixau edo harremanetarako telefono: 943179848.

MALLABIKO FUTBOL SALA EKIPUE

Mallabiko futbito taldie, kadete mailako futbol sala talde federatue sortzekotan dabil. Talde hori sortu ezkeru, liga nazionalien jokatuکو leuke. Holan ba, 1998-1999-2000 urte bitartean jaio eta futbola gustuko badozue deittu 669 028 718 telefonora.

IKASTARUEK MARTXAN

2013-2014 ikasturterako ikastaruen eskaintza kaleratu dau Udalak. Horien artien, urtero plazaratzen dien ikastaruek dauz, esate baterako 'spinning' eta mantenezko gimnasia kiroldegixen; umeentzako euskal dantzak, soinua eta panderoa, baitte yoga ikastarue be eskolan; abesbatza gazte eta helduentzat, KZ Gunea edota AEK euskara ikastarue. Aurten nobedade lez, aerobik ikastarue eskeñiko da kiroldegixen. Eta sei urtetik aurrerako gaztetxuentzat 'Gozatu! Dantza eta Kantu!' jarri nahi da martxan, kantue eta gor-

putz adierazpena uztartuko dituen. Informaziño gehiau nahi izenez gero, gerturatu Kultur Etxera.



URRIKO JAIXEK

Nahiz eta ondiok Urriko jaixetako egitarauue guztiz zehaztute ez egon, hona hemen momentuz antolatute dauzen ekintzak:

URRIAK 25, barixekue

16:30 Umientzako TAILERRAK frontoien (Antolatzaillie: Guraso Elkartie).
18:00 TXUPINAZUE Izar Gorri Elkartian eskutik eta ENKARTELADIE.
19:00 Elizpeko PILOTA txapelketian finala.
20:00 OILASKO PINTXUEK plazan.
20:30 Euskal Herriko I. DNI txapelketie plazan.
22:30 ERROMERIXIE plazan.
02:00 KARAOKIE Herriko tabernan.

URRIAK 26, zapatue

10:00 Futbito Txiki eskolan: Mallabia-Zaldibar (Antolatzaillie: A.D. Mallabia F. T.).
Eguerdixen FRONTENIS txapelketian finalaurrekuek (Antolatzaillie: A.D. Mallabia F. T.).
16:00 Zinie Kultur Etxian (Antolatzaillie: A.D. Mallabia F. T.).
18:30 FRONTENIS txapelketian finalak (Antolatzaillie: A.D. Mallabia F. T.).
20:00 TOKA txapelketie.
20:30 TRIKI-POTEUE .
22:00 ROCK KONTZERTUE parkien. SEIURTE, GATIBU, VENDETTA eta EMEPEBOST

URRIAK 27, domekie

12:00 Gaztetxuen arteko PILOTA partiduek (Antolatzaillie: Mallabia I Pilota Eskola).
16:30 Mus, Tute eta Briska tabernetan.
17:30 TXOKOLATADIE plazan (Antolatzaillie: Izar Gorri Elkartie) eta ondoren aizkolarixek eta harri-jasotzaillie.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre

san pelayo
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

Askotan, konponketa erantzun egokiena da



**AUTO-REPARACIONES
AREITIO, S.L.**

634 errepide nazionala - 69,5 km.a Areitio Gaina 15 - 48269 - Mallabia
Bulegoa: 943 17 51 00 / Tailerra: 943 17 08 06 / Fax: 943 17 20 15
www.areitiomotor.com
administracion@areitiomotor.com / areitiomotor@areitiomotor.com



GOIENKALE Z/G
ERMUA
Tel. 943 030 112

MERKATU PLAZA 7
ARRASATE
Tel. 943 770 598

Montis DQ Mouth

Igeltserotza - Iturgintza

Errekalde

Esteban Goikoetxea
Errekalde baserria, 1
48260 ERMUA Bizkaia
Tel: 662 51 42 68
errekalde.gm@gmail.com

Mallabiko auzo-eskolak gogoan

Escuelas de barriada. Biztanlegoaren kokapen sakabanatuari erreparatuta, 1919tik aurrera lurralde osoan ehunka eskola unitario eraikitzen hasiko da Bizkaiko Diputazioa. Auzo-eskola izendapen horrekin, Mallabiak hiru izan zituen.

Perretxikoen pare ugalduta, oinarriko helburutzat zuten XX. mendearen bizi-modu berrientzat egokia zen hezkuntza eskaintzea, analfabestismoa saihestea eta eremu euskaldunetan euskararen irakaskuntza bermatzea. Azken horren harira, euskarazko lehen testu-liburuak argitaratuko ziren eta doktrina ere bertakoen ama-hizkuntza errespetatuz emango zen. 1922ko hauteskundeetan baina, Liga Monárquica alderdiaren garai-penak, atzerapauso handia suposatu zuen euskalduntze asmo horietan.

Eskolak apurka-apurka joan ziren zabaltzen baserri arteko auzo landatarretan, beti ere eskolatze sasoiko 10 umetik gora bizi bazen inguruan. Araudi bateratua aterra zuen Diputazioak irakasleria zein eraikinen gainean; dokumentu horren ondorio aipagarrienetakoa eta eraginkorrenetakoa lekuan lekuko Ikuskaritza Batzordeen sorrera izango zen. Erreskan, elkarren atzean zabaldu ziren Mallabian auzo-eskola izenpean egondako hirurak: 1924. urtean Zengoitte (ofizialki Osma-Cengoitita), 1925ean Gerie (Guere-

na) eta 1927an Artixe (Verano). Herriak eskola gehiago ezagutu baditu ere, izan San Juanen edo herri gunean bertan, Diputazioaren Foru Artxiboan dokumentatuta dauden bakarrak aurreko hiruhoriek dira.

Bazkaldu ere bertan

Eskola-eskola ikasi behar zen han; leitze eta eskribitze kontuetan zorrotzak ziren maixu-maistrok. Bakoi-tzak bere arbeltxoaren zuten eta zeozetan okertu ezker, ttu!, bota txistua eta ukondoarekin garbitzen zuten. Horrela egoten ziren jertse-

ak, arbela garbitzearen garbitzeaz, gastatuta eta zulo ederrekin! Eguraldiak laguntzen zuenean, kanpoan, ondoko zelairen batean ematen zuten eguneko eskola; noizean behin gero, urrunera abiatu barik, pasiadaren bat. Orduko umeek baina ez zuten ibili falta larregirik izaten: eguneroko lau joan-etorrien ostean, batzuk doktrinara eta domeketako mezetara Mallabira, herri bertara etorri beharra izaten zuten. Negu gogorrean, euren baseritik eskolara arteko lokatz, putzu eta basatzeko bideetan zehar joatera behartuta, sarritan goizeko jardunera azaldu ere ez ziren egiten. Zetozenean, etxetik ekarritako jatordu hotza jaten zu-

ten, sarriegi eskolaren kanpoko aldean eta hotzak hil beharrean. Honen jakitun eta irtenbidea emate asmoz, Diputazioak eskolen barruan jatordua berotu eta bazkaltzeko gune bat atontzeko agindua eman zuen. Kantinak. Foru erakundeak sukaldeko tresneriaz, garbitasuneko produktuez, eta sukaldatzeko zein gelak berotzeko ikatzez hornituko zituen; Udalak bere aldetik armairu bat, mahai bat eta pare bat ixillu, pare bat banku luze jiratzeko konpromisoa hartu zuen bere gain. Artixeko kantina eskola inauguratu eta urte beterra atondu zen; Zengoittekoaren kasuan, umeak gertu bizi eta bazkaltzera etxera zihoazenez, sukalde-janto-



Geriko auzo-eskolaren inaugurazioa 1925eko irailan. Erretraturako jarrira ume, auzokide, alkate, abade eta Diputazioko ordezkariak.


J. LUCAS
PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

MALLABIKO
Herriko
taberna

Eguneko platera (3€),
menua bokatak,
plater konbinatuak,
pintxoak, kazolak,
arraina eta txuleta
parrillan (enkarguz)...

943 174 952
(asteartetan itxita)



Material eskoera Diputazioari, Osma, 1932. BFAH/AHFB. Administrazioa. Instrukzio Publikoa. 1 109/3.

kiak beste funtzio bat bete-ko zuen, sasoiko pentsamoldetarako garrantzi handikoa: neskatoak etxekoandre zereginetan trebatzea.

Maixu-maistrak dantzan

Diputazioaren eskuizkribuetan, bitxikeriak ere tar-tean: deigarria 1926an Osma-Cengotitako maistrak

leku-aldaketa eskatzeko emandako arrazoia. Iturretako eskolatik zetorren eta Mallabian 9 egun besterik ez zeramala, lehengo lekura aldatzea erregutzen dio Hezkuntza Ikuskariari, Osma "perjudicialísimo" delako bere osasunerako. Markinako Iturreta auzoan beste klima bat topatuko zuelokoa! Eta sinistu zioten konti-

zu, ze laster bidali zuten beste bat.

Gerriakoak ere bereak eta bat bizi izan zituen maixu-maistrak zirela-eta. Eskola inauguratze aurretixoan, lkuskaritzak bertan lan egiteko proposamena egin zien ibiltari zeuden 26 irakasleri. 18k uko egin zioten, baka-rrak onartu: Concepción de la Torrek. Honek baina urte betera eszedentzia eskatu eta beste pertsona bat kargutu zen eskola eta ikasleez. 7 urtetan, 5 maistra desberdin ezagutu zituzten gerri-rrak. Ez gutxi!

Azkenik, Mallabiko Udalak gordetzen duen dokumentazioan, aurrekorik egon ezean, 1941ean ematen zaio hasiera Lehen Hezkuntzako Udal Batzordearen akta-liburuari, berorren osaketarekin hasiz: partaide izendatzen dituzte Benigno Pradera alkatea, Juan Avendibar zinegotzia, Silvestre Bu-

ruaga elizgizona, Andres Amondo maixua, M^a Dolores Ecurza maistra, Julian Echevarria sendagilea, Eduardo Guisasola gurasoa -*padre de familia* dokumentuan-, Bonifacia Zabala gurasoa -bere kasuan *madre de familia*- eta idazkari lanetan Domingo Bustinduy. Hemendik aurrerako aktek berba egiten dute herrian bertan eta auzoetan sakabanatutako eskola unitarioak hornitzeko eta mantentzeko Hezkuntza Batzorde horrek hartutako erabaki, emandako diru-partida, izandako zailtasun eta abarrron gainean.

Eskolaume ugari pasatu dira bertatik: belaunaldi bat eta beste bat eta ondorengo... Erreteila berri eta konponketa batzuk tarteko, zutik iraun dute gaur egunera arte. Eraikin sendo eta gogorrek behar izan!

Estibalitz González

Arianne Unamuno, Soraluzeko Pil-pilean Euskara Elkarteko lehendakaria: “TopaEguna euskaltzaleok batu eta ilusioa transmititzeko eguna izango da”

Irailaren 28an, larunbata, TopaEguna ospatuko da Soraluzen, Pil-pilean Euskara Elkarte, Euskaltzaleen Topagunea eta Deba bailarako Euskara Elkartearen elkarlanari esker, tartean Euskal Birusa. Egitaraua goizean hasi eta ‘Kokein’ eta ‘Gose’ren kontzertuekin bukatuko da eta Euskal Herriko adin guztietako euskaltzaleak daude parte hartzera gonbidatuak.

- Zein da TopaEgunaren helburua?

Helburu nagusia da herriz herri euskararen sustapenean lanean diharduten euskaltzaleei jai egun eder bat eskaintzea. Horrekin batera, euskara elkarteetarik urte osoan zehar egiten den lanaren balorea aldarrikatzea. Askotan ez dugu gure elkarteek eta ekimekek duten garrantzia baloratzen, baina konturatu behar dugu zeregin zentrala dutela gure hiztun komunitatea antolatu, sendotu eta etorkizuneko bidea egiteko orduan.

- ‘Emaiozu balorea’ da eguneko lema eta bi ardatz azpimarratu zenuzuten Donostian egindako aurkezpenean: euskaltzaletasuna eta auzolana.

Jaia antolatu duzue, baina badu aldarrikapenik ere, ezta?

Bai. Aldarrikatu nahi dugu badela beste bide bat homogenizazioaren eta indibidualismoaren bidetik ezberdina dena: munduko hizkuntza aniztasuna zaintzearen aldekoa, auzolanean funtzionatzen duena... Horixe da euskara elkartearen mugimendutik beste gizarte mugimendu batzuekin batera egunero herriz herri jorratzen dugun bidea, euskaltzaletasunetik geure hizkuntza komunitatea -herrikoa nahiz nazio mailakoa- sendotzeko ahalginean.

- Soraluzen antolatzeak badu azalpen berezirik?

Deba bailarak (Debagoienak eta Debabarrenak) beti



izan du garrantzi handia euskara elkartearen mugimenduan. Batetik, lehen elkarteak bailara honetan sortu zirelako, eta gerora ere erreferentzia izan direlako hainbat arloren garapenean: toki hedabideak, aisialdia... Herria baino gehiago bailara da aukeratu dena eta gurean egitea suertatu da. Hasieratik landu da bailarako ikuspuntu hori eta Debagoienerako eta Debarreneko elkarteok hilabeteak daramatzagu TopaEguna antolatzeko auzolanean. Herri mailako elkarteekin ere badihardugu: elkarte gastronomikoekin, kulturgileekin, gazteekin, udalarekin...

- Bukatzeko, nori luzatu nahi diozue gonbitea irailaren 28an Soraluzera hurbiltzeko?

Euskaltzaleei, elkarteetan antolatuta daudenei eta ez daudenei. Saiatu gara egitarau zabal eta anitza osatzen, adin eta zaletasun askorentzat gustukoa izan daitekeena: kantujira izango da, mintza-probak, umeentzako jolasak eta irrien lagunak, bazkaria, kale animazioa, erromeria eta kontzertuak iluntzean... Euskaltzaleok batu eta elkarri euskararen aldeko lanean aurrera jarraitzeko ilusioa transmititzeko eguna izango da; geure eguna.

MUGA **KIKLOAK**

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA



**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Zure publizitatea...

drogeteniturri
aldizkarian

943179350 • 688632876
Erdikokale 2, 1 •
drogeten@gmail.com

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**ONAINDIA
HARATEGIA**

Etxean egindako
odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1 Tel. 943 10 85 44
48260 - ERMUA Mug. 678 64 85 41

topa eguna

Soraluze
Irailak 28

emaiozu
ba**lorea**

euskalduntasunari

plazari

mugimenduari

11:00 HARRERA

Goizean
UMEEN HIRIA
BERBA PROBAK
ANDRABANDA FEMINISTA
KANTU JIRA

14:30 HERRI BAZKARIAK
topagunea.org/topaeguna edo
herriko euskara elkartera jo

Bazkalostean
IRRIEN LAGUNAK
KULTUR GINDAK
HEZITZAILEEN ARTEKO JOLASAK
KALEJIRA

18:00 EKITALDI NAGUSIA

Iluntzean
XERO XIETTE erromeria

22:30 KOKEIN + GOSE kontzertua


Antolatzaileak:



Babesleak:



Laguntzaileak:



Egun osoz edari eta talo txosnak!!

NEKAZARIEI ZUZENDUTAKO IKASTAROA IZARRA CENTERREN

'Marketin elektronikoa eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriak' izenburupean, 150 orduko ikastaroa burutuko da Izarra Centerren. Lanbidek, Ermuko Udalak eta Eusko Jaurilaritzak bultzatutako ikastaro hau nekazaritza sektoreko profesional, enpresa eta ekintzaileei zuzenduta dago. Izena eman edo informazio gehiago nahi dutenek Torreta Etxera (943179151) edo Izarrara (943179018) jo beharko dute.

BOC TALDEAK IRABAZI DU VIII. FOLKEZ BLAI LEHIAKETA

Mallorcako 'Boc' taldeak irabazi du aurtengo Folkez Blai lehiaketa, eta horri esker, 3.000 euro jaso ditu. Bigarren saria (1.500€), Madrilgo 'Martina quiere bailar' taldeak jaso du. Guztira 37 talde aurkeztu dira aurtengo lehiaketara eta, saria jaso duten taldeez gain, Kataluniako 'Amshar', Nafarroako 'Iparfolk' eta Toledoko 'The Fatty Farmers' eta 'Mosquera Celtic Band' heldu dira finalera. Lehiaketatik kanpo, Korrontzi, Tazzuff (iazko irabazlea), Seafoid, M'Lomp eta Irulitza taldeek jo dute.

XXIV. San Martin azoka azaroaren 9an burutuko da

Euskal Birusak antolatzen duen San Martin azoka azaroko bigarren larunbatean ospatuko da, azaroaren 9an. Antolaketa-lanak udatik bueltan hasi ziren eta egunean bertan egin beharreko lanetan lagundu nahi duten herritarrek 943 17 93 50 edo 688 63 28 74 telefonotara deitu dezakete. Azokan parte hartu nahi duten baserritar eta ekoizleek, berriz, Ermuko Udaleko Euskara Sailera deitu beharko dute (943 17 91 47).

Bestalde, Euskal Birusa hasi da San Martin kulturalaren egitaraua osatzen eta horren barruan, bertso jaialdia egingo da urtero legez, azaroaren 15ean, 22:15ean, Ermua Antzokian. Uxue Alberdi, Beñat Ugartetxea, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio eta Alaia Martin arituko dira bertan eta gai-jartzailea, berriz, Josu Goikoetxea izango da. Sarrerak 10 eurotan salduko dira eta aldeaz aurretik erosi ahal izango dira Lobiano Kulturgunean, BBKko kutxazain eta webgunean eta 944 310 310 telefonoan.

San Martin Kulturala
Bertso jaialdia
Ermua Antzokian, azaroaren 15ean, 22.15ean

 Maialen Lujanbio	 Andoni Egaña
 Unai Iturriaga	 Uxue Alberdi
 Alaia Martin	 Beñat Ugartetxea
 Josu Goikoetxea	 Gai jartzailea

Sarrera: 10€
Lobiano Kulturgunean, BBKko kutxazain, webgunean eta 944 310 310 telefonoan salgai.

Eskerrik asko txikurizaleok!

Santixau jaietako txikurixan nola edo hala laguntza eskaini diguzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizue Euskal Birusa Euskara Elkarteak: Alazne Aiestaran, Alex Álvarez, Jon Álvarez, Gorka Alzaa, Aiala Amesti, Goizargi Amesti, Igone Amesti, Maritxu Amillategi, Josu Araiztegi, Oier Araiztegi, Eider Aranburu, Ines Arano, Jon Areitio, Gaizka Areitioaurtena, Eli Areitioaurtena, Amaia Arriaga, Jone Arriaga, Esti Arrizabalaga, Iratxe Arrizabalaga, Irune Asumendi, Karmen Atxitxe, Asier Azagirre, Alberto Belar, Nerea Berriozabal, Bilbo, Arantxa Cañameres, Ainhoa Cid, Andrea Diez, Dani Domínguez, Leire Elustondo, Nagore Espilla, Txomin Espilla, Adei Fernández, Juan Fernández, Naiara Gallastegi, Jon Garitagoitia, Aitor Garzia, Olaia Gerrikabeitia, Eider Gisasola, Estibalitz González, Rober Gorospe, Juanjo Gorritxategi, Maria Hormaetxea, Asier Ibaibarriaga, Alex Idigoras, Antxon Izagirre, Nerea Izarra, Rosa Jaussi, Esther Larreategi, Aitzol Lejardi, Aroia Lejardi, Jon Ander Lerin, Irati López, Alicia Lorenzo, Edurne Madariaga, Gloria Mallea, Manuel Moreno, Arantzazu Mugerza, Patrizia Mujika, Bea Narbaiza, Idoia Narbaiza, Aitor Ogiza, Estitxu Olano, Iban Pérez, Arantzi Perosanz, Aintzane Plaza, Hiart Redondo, Nerea Redondo, Ane Sáenz, Karmen Solozabal, Iñaki Totorika, Txanga, Jokin Txapartegi, Eli Txurruka, Iratxe Uribelarrea, Leire Uribelarrea, Bea Urreta, Dorleta Vidal, Berta Yarza, Irune Yarza, Nati Yarza, Antxon Ziarsolo eta Idurre Zuazua. Ahazten zaigun baten bati eta tragoxka bat hartzera eta dantzara etorri zinetenei ere, milesker eta datorren urtera arte!

XXIV. SAN MARTIN AZOKAN:

100€ =



+



688632874

Errifen takoa eskuratu nahi duten tabernari eta dendariak, 100€ ordaindu eta laguntzaile bandera jasoko dute. Informazioa: 943179350

AEK-k eta Mallabiko Udalak hitzarmena sinatu dute



Hitzarmena lau urtez egongo da indarrean eta horren helburua euskaltegiak aurrera daraman lana bultzatzea da, Mallabiko biztanleria heldua euskaldundu eta alfabetatzea, hain zuzen ere. Arduradunek azaldu dutenez, helduen euskalduntze-alfabetze lana "funtsezkoa" da: "Helduok euskara ikasi, egin eta eginarazi gabe ez dago gazteen eta umeen artean hizkuntza erabiltzearen aurrerapauso kuantitatibo eta kualitatiborik ematerik". Ermuko Kaltxango euskaltegiko irakasleak

leak duela 20 urte hasi ziren Mallabian eskolak ematen eta iaz, 14 pertsona joan ziren Mallabiko euskaltegira euskara ikastera. Beste hainbat mallabitar Ermuko euskaltegira ere joaten direla azaldu dute Kaltxangoko arduradunek. (Argazkian: Mallabiko Alkate Mila Mondragon, AEKko arduradun Mertxe Mujika eta Kaltxango AEKko irakasleak).

Esperientzia Eskolak izena emateko epea zabaldu du

Debabarreneko Esperientzia Eskolak 10 urte betetzen ditu aurten eta bailarako gizon eta emakumeak izena ematera gonbidatzen ditu. Parte hartu ahal izateko, 50 urtetik gora izan behar da eta "kezka sozial eta kulturalak dituztenentzat, lanean zirelako ikasketak bukatu ezin izan zutenentzat edota, denbora dutenean, hainbat ezagutzetan sakontzea nahi dutenentzat da egokia", antolatzaileen esanetan. Eskolak urriaren 22an hasi eta maiatzaren 29an bukatuko dira, astearte, asteazken eta ostegunetan, 9:30etik 12:30era, Eibarko Untzaga Elkartean. Matrikula bailarako udaletxe guztietan egin daiteke eta informazio gehiago jaso nahi dutenek www.ikasten.info webgunera edo 695 788 936 telefonora jo dezakete. Matrikularen prezioa 200 eurokoa da eta ordainketa lau alditan zatitu daiteke.

Juanita Ibaibarriagaren XX. edizioa zabalik

Juanita Ibaibarriaga Literatur eta Erreportaje Lehiaketaren 20. edizioa zabaldu du Udala Euskara Sailak. Lehiaketaren xedea ermuarren artean euskaraz idazteko zaletasuna sustatzea da eta parte hartu ahal izateko bi modalitate daude. Lehen modalitatea herriko haur guztiei zabalik dago eta bereziki LHko 3, 4, 5 eta 6. mailako eta DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleentzat. Bigarren modalitatean, berriz, nagusien erreportajeak bilduko dira. Lanen luzera 4.600 eta 5.600 karaktere artekoa izan beharko da eta derrigorrez Ermua edo ermuarrekin lotura izan behar du gaiak. Lanak udaleko Euskara zerbitzura, Lobiano Kulturgunera zein Udala Liburutegira eraman daitezke edo euskara@udalermua.net korreo elektronikora bidali behar dira, azaroaren 7a baino lehen.

ERROTABARRI ESKUBALOI TALDEAK DEIALDIA EGIN DU

Denboraldi berriari ekin dio Errotabarri Eskubaloi Taldeak eta, aldi berean, jokalaria eta, aldi berean, jokalaria berriak bilatzeko kanpaina abiatu du. Eskubaloia eta horren baloreak ezagutu nahi dituzten umeek taldearekin jar daitezke harremanetan: errotabarrieskubaloi@yahoo.es helbidean edo 943030272 telefonora deituta. Errotabarri 2007. urtean jaio zen, kategoria txikiekin eta iaz senior taldea osatzea lortu zuen.

V. BTT MARTXA URRIAREN 13AN

Debabarrenak antolatutako martxan honetan parte hartu nahi dutenek www.kirolprobak.com webgunean eman beharko dute izena, urriaren 12a baino lehen: 12€ federatuek eta 15€ gainontzekoek (urriaren 10etik aurrera, 3 euro gehitu beharko zaizkie prezio horiei). Probaren irteera eta helmuga Elgoibarko Mintxeta Kirol Gunean egongo da eta bi ibilbide burutzeko aukera izango dute parte hartzaileek, 25km. edo 45km.koa. Informazio gehiago: www.debabarrenaturismo.com atarian.

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

TELEFLOR INTERNACIONAL

Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKI LORE

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

Ermuko hiru tabernek hartuko dute parte Bizkaiko Pintxo Txapelketan

Giroa, Infreñu eta Titanic tabernak arituko dira 'XVI. Bilbo Bizkaiko Pintxo Txapelketan', urriaren erdialdean. Bi astez, lehiaketara aurkeztutako pintxoak salgai izan beharko dituzte (1,50 eurotan) eta motibazioak motibazio, Urrezko Zotza herrira ekartzea nahiko lukete hirurek.

Giroako Maria Cobok, Infreñuko Rikar Txabarrik eta Titanic-eko Jesus Gonzálezek ilusioz begiratzten diote pintxo txapelketa honi, Bizkaiko pintxogilerik onenak batuko dituen lehiaketari, alegia. Jo eta su ari dira jada euren tabernen eskatze-tan, "horrelako kontu batek aparteko lana eskatzen duelako", diote hirurek.

laz Titanic tabernak hartu zuen parte bakarrik eta Publikoaren Saria lortu zuen. "Oso ondo tratatu gintuzten eta esperientzia polita izan zen -dio Jesus-". Ermuko pintxo lehiaketaren antzerakoa da, baina izen handiko

sukaldariak hartzen dute parte, esaterako Fernando Canales sukaldariak". Hori ikusita, aurtien Giroak eta Infreñuk ere izena eman dute. "Nik erronka moduan hartu dut, nire mugak gainditzeko gai naizen ikusteko -dio Mariak-. Sukaldean hasiberria naiz eta ikasteak motibatzen nau". "Gainera tabernarentzako pizgarria da", azpimarratzen du Rikarrek.

Bi modalitate

Txapelketan bi modalitate daude. Bat librea da eta bestean, antolatzaileek aukeratutako osagaia erabili behar dute parte hartzaileek, edizio honetan, txipiroia. Giroak eta Titanic-ek bi modalitateetan hartuko dute parte. Giroak ez ditu oraindik izenak aukeratu eta Titanic-en proposamenak, 'Texturas' eta 'Udazke-



neko lurrinak' izango dira. Infreñu, berriz, 'Kiputxipi berria'rekin arituko da, txipiroiaren modalitatean bakarrik. "Ermuko lehiaketan hori aurkeztu genuen eta arrakastatsua izan zen", dio Txabarrik.

Lehiaketa urriaren 17tik 20ra eta 24tik 27ra burutuko da eta nahi duen orok dastatu ahal izango ditu mokaduhoriek. Sukaldari eta zerbitzariak antolatzaileek emandako jantziak eraman beharko dituzte eta epaimahaiak abisatu barik bisitatu dituzte tabernak.

Herrian giroa sortzeko eta bezeroen onarpenak emozio

berezia sortzen diete tabernari hauei, baina Urrezko Zotza irabazteko aukera ere eskura daukate... "Guk lehiaketa batean parte hartzen dugunean, irabazteko asmoa dugu. Oraingo honetan badakigu ia ezinezkoa dela, baina...", adierazi du Rikarrek. "Nik ez daukat irabazteko esperantza handirik... Librearekin ez, behintzat", dio Mariak. "Nik bietan ditut sentsazio onak", besteen kontra, Jesus-ek. Epaimahaiak azaroaren 12an hartuko du erabakia, Artxandako Sukaldaritza Eskolan burutuko den ekitaldian.

Dorleta Vidal

2013 16 Bilbao Bizkaia
pintxo
txapelketa

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE eta INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

ALBOKA

MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

ALEX ALONSO

- **Nola oroitzen duzu zure gaztaroa?**

Parrokia nire bizitzaren parte zen, konfirmazioa egiteko apuntatu ginen koadrilako lagunak eta horrela ezagutu nuen Nazareteko Jesus.

- **Nolakoa da apaiz baten errutina?**

Goizean prestakuntza lana egiten dut, gaixoak bisitatzen ditut, apaizekin batzartzen naiz... Arratsaldean, 4etatik aurrera parrokian egoten naiz eta 7etan meza ematen dut. Egun denak ez dira berdinak, nire agenda herritarrek markatzen dutelako.

- **Zer da zure lanaz gehien estimatzen duzuna?**

Zerbitzatzea eta Nazareteko Jesusen figura ezagutzaraztea.

- **Bidaiatzeko aukera eman al dizu ofizioak?**

Bai, Oporton, Polonian, Jerusalem edo New Yorken egon naiz, baina Latinoamerikara bidaiatzeko gustatuko litzaidake.

- **Nola lasaitzen duzu zure burua?**

Lagunekin egoten, poteatzen, irakurtzen, zinera joaten, musika entzuten... Poteatzen ikusten nautenean harritu egiten dira!

- **Musika estilo bat aipatzekotan ...**

Denetarik entzuten dut, adibidez U2, Manolo García edo musika klasikoa.

- **Zer nolako liburuak irakurtzen dituzu?**

Nire lanarekin zerikusia duten liburuak eta gaur egungo literatura.



Duela 49 urte jaio zen Zaldibarren. 7 anai - arrebetatik bera 5.ena da. Armeria Eskolan metalgintza ikasi zuen eta ikasketak bukatzean, fabrika batean egon zen lanean. 26 urte zituela joan zen seminariora, eta ustez Jesus hil zen adin berarekin, 33 urterekin ordenatu zen. Portugalera apaiz izan ondoren, gotzainak Ermuko parroko izendatu eta 5 urte daramatza herrian.

- **Zein da eguneko unerik goxoena?**

Gaua, eguna erreparatzen dudalako eta lasai nagoen unea delako.

- **Jateko gogokorik?**

Pasta italiarra eta gatzdun janaria.

- **Zerk eragiten dizu barrea?**

Jendeak egiten duen umorea, txisteeak, umeeak...

- **Urduritzen al zaitu zerbaitek?**

Bai, espero dudana moduan erantzuten ez dutenean.

- **Bizitzak zer irakatsi dizu?**

Gauza txikiekin disfrutatut behar dugula eta denok daramagula Jainkoa barnean. Gertatzen dena da, batzuek deskubritzen dugula eta beste batzuek ez.

- **Proposamenik?**

Ikastetxeetan erlijio ezberdinak erakutsi beharko lituzketela, analfabetismo erlijiosoan bizi garelako.

- **Kristautasuna asko aldatu da...**

Kristautasun primitiboa partekatzearen aldekoa zen eta egun, oso egitura hierarkizatua du. Frantzisko Aita Santuarekin bat egiten dut

pobreentzako Eliza eraiki nahi duelako kristautasunaren hastapenetara bueltatuz.

- **Erljio-gerra anitz izan dira historian...**

Bai, fanatismo eta fundamentalismoaren ondorioz. Ez du inork erlijioaren monopolioa, eta ezin da Biblia hitzez-hitz kontuan hartu.

- **Zer miresten duzu pertsona batengan?**

Autentikoa, benetakoa, zintzoa eta koherentea izatea.

- **Zer da bekatu?**

Norberari, besteei eta Jainkoari egindako kaltea.

- **Bekatu al duzu inoiz?**

Noski, ni ere pertsona naiz. Garrantzitsuena gauzak txarto egiten ditugula onartzea da, bekatu deitu edo ez.

- **Abortua...**

Oso gai delikatua da. Katolikook bizitzaren defentsa egiten dugu eta printzipio horregatik esaten diogu ez abortuari. Baina kasuan-kasu hausnartu behar da.

- **Dibortzioaren gainean zer esango zenuke?**

Erlazio egonkorren aldeko apustua egin behar dela eta aldamenen daukazu pertsonarengan konfiantza izan.

- **Krisia igartzen al da?**

Bai, demanda gehiago dago Caritas-en.

- **Berriz jaioko bazina...**

Apaiz izango nintzen berritro eta fedea edukiko nuke. Jasotzen dudana ematen dudana baino gehiago delako.


Leire Elustondo



CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, 18 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



SAGARDUI
poltsak
Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

Zorionak San Pelayo Ikastetxea!

Ezagutzen nauenak edertotxo daki zenbat gustatzen zaidan txirrindularitza, horrexegatik hain zuzen, lagunen arteko solasaldiek sarri jotzen dute bi erroberen kirolerantz. Euskaltel taldearen desagerpena eta Fernando Alonso kotoxe gidariak txirrindularitzaren mundura egin duen hurbilketa puri-purian dagoen gaia izaki, DROGETENITTURRIK gonbidapena egin zidan gaiari buruzko iritzi artikulua bat idazteko. Baita nik onartu ere!

Ez naiz, hala ere, gauza izan honi buruz ezer idazteko, ermua-rrontzat, nire ustez, askoz ere garrantzi handiagoa duen gai bat alboratuta.

Txirrindulari afizioz, maisu ofizioz, nire arreta piztu duen berri bat ekarri digu ikasturtearen ha-

sierak: Ermuan estreinakoz, herriko ikastetxe batek Batxilergoa eskaini ahal izan die DBHko ikasketak amaitu dituzten bere ikasleei. Zorionak beraz, San Pelayo Ikastetxearentzat.

Hezkuntzarekin zerikusia izan duen beste berri onik ere izan da gure herrian; izan ere, Udal Plenoan, Gobernu Zentralak indarrean jarri nahi duen LOMCE legearen inguruan eztabaidatzen egon baitira ordezkatzeko gaituzten zinegotziak. Hezkuntzaz kezkatzen direla erakutsi digutenez, Ermuko egoeraren aspektu bat plazaratzeko parada aprobetxatuko dut.

Ermuko ikasleek Batxilergoa beraien herrian ikasteko izan duten eskaintza oso ahula izan da gaur arte. San Pelayo Ikastetxearen eskaintzak egoera hobetzen



Gaizka Areitioaurtena

badu ere, IES Uni Eibar-Ermua BHIk Ermuan Batxilergoa kurtsatzeko ematen duen aukeraz herriko ikasle gutxi baliatzen dira, gehienak herrikan kanpora joaten baitira batxilergoa egitera. Gainera, Ermuan Batxilergoa euskaraz kurtsatu nahi duten ikasleek beste herri batera jo behar dute derrigorrean bertan talderik sortzen ez delako.

Egoera honek kezka handia sortu du Sare Publikoko hezkuntza eragileongan. Ezinbestekoa bezain urgentea da Ermuko Eskola Maparen azterketa sakon bat egitea, gure herriak dituen hezkuntza beharrei lehenbailehen aurre egiteko.

Ezinbestekoa bezain urgentea da Ermuko Eskola Maparen azterketa sakon bat egitea



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETAN

Komentukua, 6 behe 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
 Tel. 943 17 90 37
 e-maila: enter-i@arrakis.es



NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA



San Inazio 4 - Ermua
 943 030 512 / niklinika@gmail.com

solozabal
tabakoak

torrekua 1
 tel./fax: 943 17 07 33




Ardo banatzailea:
 Luis Cañas
 Cantosan Verdejo
 Viña 65 Verdejo
 Amaren
 Añada Real
 Cava Oriol Rosell
 Nitida
 Montepinos

D. ARRAL 97 S.L.
 Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892
 arral@arral97.com
 www.arral97.com

LAN BILA

Mutil arduratsuk bere burua eskaintzen du edozein lan egiteko: etxeko lanak, tailerrak, banaketak, gidari lanak... © 631429711. Andrés.

LANGILE BILA

Andra euskalduna behar dugu nagusi bat zaintzeko gau eta egun Mallabin. Asteburuak libre. ©635734646

IRAKASKUNTZA

Alemanezko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Azterketen prestaketa HEO. ©670793312



Irailaren 15ean
Zorionak Peru zure urtebetetze egunian etxeko guztion partez.



Irailaren 30ean
Zorionak Ainhoa. 13 urte!!! Musu erraldoi bat Maite, ama eta aitaren partez.



Urriaren 1ean
Zorionak! Indarrak hartu 4 kandelei putz egiteko. Muxu potolo bat etxekoekin partez.



Urriaren 7an
Zorionak Maite eta Izaro. A ze pareta...



Beñat (abuztuaren 2an)
eta Hamma (irailaren 5ean)
Zorionak bikote familia osoaren partez, patxo potolo bat.



JuneK abuztuan eta Gorkak irailan, biek urte bat gehiago eta bientzat besarkada handi bat bere familien partez.



Zorionak Andere, Aitor eta Amaia. Patxo handi bat etxekoekin partez.




Irailaren 1ean
Zorionak Intza zure lehengo urtean familia guztiaren partez!

Marivi Bilbao 'Malengo'

Irailaren 19an hil zen, 73 urte zituela

Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi dizkiegu haren senide eta lagunei.



Euskal Birusa

TXINDURRI
TALDEA
Tokian tokiko

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINNTZA BEREZIA OSTRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

MALLABIA
1934

Enrike Arriaga
Bittor Arregi
Damian Ortuzar
Fermin Olano
Florentino Aranburu
Leon Txurruka
Juan Gorritxategi
Benito Aranburu



ERMUA
1958



Orbe Kardinalaren plazan,
tente Conchita Iturriaga
eta Inma Solozabal.
Makurtuta Mari Carmen Aldazabal
eta Merche Amillategi.

Beraien ostean ezin hobeto ikusten
dira plazan egondako Udaletxea eta
Zubiaurrera pasatzeko arkoa.

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

Quetzal berria!!
[arropa, bitxiak, opariak...]
ekainetik aurrera
Eibarren ere

Goenkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500


Ikasturte berriari heldu diote umeek jada eta eskolaz gain, futbol, antzerki, informatika, ingeles, pintura, atletismo, musika... eta amaigabeko eskolaz kanpoko ekintza zerrendari egin beharko diote aurre aurten ere.

**Ondo iruditzen zaizu umeek eskolaz kanpoko horrenbeste ekintza izatea?
Nork aukeratzen ditu eskolaz kanpoko ekintza horiek?**



Ondo iruditzen zait eskolaz kanpoko ekintzak egitea, nik ere egiten nituen! Hasieran gurasoek aukeratzen dute umeak non apuntatu, baina gero eurek esaten dute zer duten gustuko. Nire seme-alabak futbol, musika, antzerki eta atletismoan aritzen dira. Ingelesean apuntatu nahi ditut.

Maite Askasibar, 48 urte



Alde batetik ondo iruditzen zait umeek eskolaz kanpoko ekintzak egitea, beste ume batzuekin harremanak egitea ahalbidetzen duelako eta gurasoei askatasuna ematen dielako. Hala ere, ume batzuk saturatu daitezkeela uste dut, dispersatu daitezkeela horrenbeste kontuekin.

Antonio García, 63 urte



Alde batetik ondo iruditzen zait, bestela umeek denbora asko igaroko lukete ezer egin barik. Eta gainera, ekintza horiei esker, beste ume batzuk ezagutu ditzakete. Bestalde, jolasteko denbora ere izan behar dutela uste dut. Diru aldetik, ez dut uste ekintzok larregiko kostua dutenik.

Mari Luz Arrabal, 68 urte



Neurri baten barruan egokiak direla iruditzen zait, baina azkenean umeak saturatzen ditugu, jota heltzen dira etxera. Gurasoek ume perfektuak nahi dituzte! Hasieran ez, baina gero umeek aukeratzen dituzte gustuko ekintzak. Nik kirola eta meka-nografia egiten nituen!

Jose Javier Gómez, 39 urte



ZINEA

5etik 7ra:
'Rush' +
'Cruce de caminos'

12tik 14ra:
'La brujas de
Zugarramurdi' +
'La cara del amor'

19tik 21era:
'Metallica: Through the
never 3D' +
'El mayordomo'

26tik 28ra:
'Prisioneros' +
'Gravity 3D'

Hainbat ordutegi.
Ermua Antzokian.

ZINE-KLUBA

Hilak 3:
'Amor: paraíso'

Hilak 10:
'Hanna Arendt'

Hilak 17:
'Violeta se fue a
los cielos'

Hilak 24:
'El espíritu del 45'

Hilak 31:
'Gloria'
20:30ean.
Ermua Antzokian.

**UMEENTZAKO
ZINEA**

Hilak 6:
'Aviones 3D'

Hilak 13:
'Epic 3D'

Hilak 20:
'Zipi Zape eta kanikaren
kluba' (Euskeraz)

Hilak 27:
'Percy Jackson y el mar
de los monstruos'
17:00etan.

MUSIKA

Hilak 11:
'Con Cierta
Desconcierto'.
L'Empordako Kamara
Orkestra. 22:15ean.
Antzokian. Sarrera: 10€

Hilak 12:
Mexiko Rebelde
Jardunaldiak.
19:30ean. Plazan.

Hilak 13:
Euskal Haur Kantu
Txapelketaren partaideak.
12:30ean. Antzokian.
Sarrera dohainik.

Hilak 19:
Blues: Los Mighty
Calacas. 20:00etan.
Lobiano Kulturgunean.
Sarrera: 8€

Hilak 26:
Ermuan kantuan.
12:30ean. Plazan.

Hilak 26:
Folk: Luis A. Pedraza.
20:00etan. Lobianon.

ANTZERKIA

Hilak 4:
'Hay que deshacer la
casa', Andoni Ferreño
eta Jorge de Juanekin.
22:15ean. Antzokian.
Sarrera: 12€

Hilak 25:
'Farsas y églogas de
Lucas Fernández',
Compañía Nacional de
Teatro Clásico eta Nao
D'amores. 22:15ean.
Antzokian. Sarrera: 12€

ERAKUSKETAK

Hilaren 6ra arte:
Margoak: Mugartea
taldea.

Hilaren 7tik 20ra:
Margoak: Irene Iriondo.

Hilaren 21etik 3ra:
Argazkiak: Mikologiari
buruzko lehiaketara
aurkeztutako lanak.
18:00etatik
20:00etara.
Lobiano Kulturgunean.

**UMEENTZAKO
IKUSKIZUNAK**

Hilak 19:
Kontzertu didaktikoa:
'Mis primeras 4
estaciones'. Ara
Malikian. 17:00etan.
Antzokian. Sarrera: 6€

BESTELAKOAK

Hilaren 6ra arte:
Gaztela-Leoneko Kultur
Zentruaren astea:
hainbat ekitaldi.

Hilak 18:
Musika eta bertsoak:
Xabier Lizaso + Andoni
Egaña. 22:15ean.
Antzokian. Sarrera: 8€


Hilak 19:
Extremadurako eguna
Euskadin: hainbat
ekitaldi. 11:00etatik
aurrera plazan.

Hilak 19:
Motordunen jaia:
hainbat ekitaldi.
16:00etatik aurrera
Probalekun.

Hilaren 24tik 27ra:
Mikologiari buruzko
jardunaldiak: hainbat
ekitaldi.

Patxi López

hamburguesería
TITANIK



Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

ILEAPAINDEGIA

Traskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

Eskaintza eta ordutegi zabalak
Txandakako taldeak
1., 2. eta 3. hizkuntza-eskakizunak / EGA
Azterketa ofizialak maiatzean eta urrian
Beka sistema
Langabetuek eta lehen mailako ikasleek, prezio erdia



emaiozu euskarari

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga eraikina

Goienkale z/g 2. solairua - 943 17 09 25

euskaltea@udalermua.net

www.ermua.es/pags/euskaltea

Izena emateko:

9:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara



**UDAL
EUSKALTEGIAK**

ikasturtea

13/14

matrikula zabalik

æek

Euskara praktikoa

Azken egunak!



*Leheengo egunetik hitz egingo duzu,
erabileran oinarritutako metodologiari esker.*



Eskolak



Mintza
praktika



Barnetegiak



On line



Autoikaskuntza



Normalizazio
planak



Titulu
homologatuak

æek

Garena ikasteko
para entendemos
pour se comprendre

eman izena

www.aek.org
902 362 294

